

# TREBIÑUKO LURRETAN

TESTU ETA ARGAZKIAK



Aitor Gurrutxaga Zubia  
(Legazpi, 1966)

Ikasketaz filologo eta lanbidez irakasle. Literaturazale, mendizale eta perretxikozalea. Euskal Herri berdea hainbat maite du Euskal Herri nabarra; espazio itotik ihes egiteko, Gipuzkoa aldeko mendi-tontorrek beste Arabako eta Nafarroako lautadak ditu gustuko. Mendi eta bailaren deskribapena baino gehiago bertako gizon eta emakumeek izandako bizipenak eta istorioak gustatzen zaizkio. Orain, berriz, istorio horiek eta berak ikusitakoak idazteko gosea piztu zaio.



## ESTIBALIZ

Estibalizko baseliza Arabako lautadaren erdian kokatzen da, Gasteiztik hurbil dagoen muino baten gainean. Lautadaren zabalean agerian behar zuena arboladiak ezkututzen du. Aspaldi ez, muinoaren iparraldean *Norteko ferrokarrillaren* geltokia zegoen, baina jendearen emana txikia izanik, jada ez da trenik

gelditzen. Lehenago ezkutatu zen *Vasco-navarroa, el Trenecito*, Gasteiztik Lizarrarako bidean Estibalizerainoko sarbidea izan zuena. Automobilaren sasoian, ordea, irabazi urriko bihurtu dira trenbide zaharrak. Dirutzak ordainduta eta, denbora xahututa bestelako geltokiak izango dituen Abiada Handiko Trenaren esperoan, ibilbidearen abiapuntura iristeko kotxea hartu behar izan dugu.

Hegoaldeko norabidean, harri zurizko erromanikoaren azpiko parkingetik behera egiten da Ardoaren eta arrainaren ibilbidearen izena hartu duen GR38aren arrastoei kasu eginda: lehendabiziko etaparen helmuga Albaita/Albaina, 23 km. Orografia-oztopo handirik gabeko ibilbidea da, Gasteizko mendiak soilik gaintu behar baitira 350 metroko igoeran.


Andollurainoko tartea goitik behera zuzen-zuzen doa kilometro pare batean Villafranca herria alboan utzita. Gasteiztik Lizarrarako errepidea zeharkatuta gora egiten du bideak. Gasteizko udalerrinari dagozkion hiruzpalau mugarririk ikusi ditugu, izan ere, hedadura handikoa da Arabako hiriburua. Erdiak moztuta eta beste erdiak artean ebaki gabe dauden garagar eta gari-sailak gaintuta erkametz basora iristen da urmael artifizial baten hormaren gainetik pasatuta. Uztaile bero honen bezperako ekaitz oparoak bideak lokaztu egiten ditu. Mendian gora pagoak nagusitzen dira: baso itxiak ez du paisaia ikusten uzten eta GR38aren seinale zuri-gorriak ondo markatu gabeko bidean ez galtzeko ezinbesteko dira.

### Pago bakarti lerdenak, enbor bihurria duten haritzak eta erkametzak

Aldapak zelai bihurtu orduko ehiza-txakurak azaldu dira usna hemen eta usna han. Nagusia urrun ez da. Larreek leku hartu diote basoari eta paisaia ireki egin da. Goitik behera Okinara bidean behiak bidelagun. Okina: eliza eta dozena erdi etxe.

## UDA IBAIAREN ARROILA

Orain arte ikusi gabeko mendizaleak ageri dira uda ibaiaren arroila ezagunean sartzeko asmoz. Ormigoizko pista amaitzen den puntuak Trebiñuko konterriaren sarrera markatzen du; zalantzak uxatzeko balio du burdinazko xaflak: *Monte Artola. Condado de Treviño*. Arroila es-tutzen den eran harkaitzen ondotik eta azpitik egiten du inoiz harrizko eta inoiz harea zuriko



den bideak. Paretan lakarra ukitu dugu zaldiaren bizkarrak edo tripa igurtzen diren gisa, nolabaiteko fereka igurikatuz, harriztarrok bizidunak balira legez.

Arroilaren ibai-adar nagusira sasoi honetan ur-negar diren baina neguan erreka bulartsu izango direnak zeharkatuta, aurrera jarraitu dugu. Pago bakarti lerdenak, enbor bihurria duten haritzak eta erkametzak. Laranja kolore bizia duten espezie bereko dozenaka tximeleta pausatuta dira orkidea batzuen lore-hautsa dastatuz: ez dira beldur, eta aise uzten diete bidaiariei argazkiak ateratzen.

## SASETAKO TABERNA

*Aupa eta aupu, kaixo eta hola*, Sasetan gora datozen paseanteak agurtuz lasai goaz zain dugun merenderoaren gertutasunak animaturik. Sasetako tabernariaren umore gazi-gozoak inarrosi gaitu. Ingurumarian jatetxe bakarra izateak bezeroen balizko protestak eragozten ditu. Entsalada gozatu orduko, olio, ozpin eta gatzaren zain dauden hurrengo bezeroei osagaiak pasatzeko ardura aurreko erabiltzaileei dagokiela jakinarazi du tabernariak oihera eginez. Nagusiaren ohituren jakitun, betiko bezeroaren itxura duen ile nahasiko gizon urtetsu egarbera baten barre algarek



Albaina

## TREBIÑU

---

bazkaltiarren harridura leundu dute. Bazka-londoko alferrari aurre egin behar izan diogu Albainara abiatuz.

### TREBIÑU ASKATU

Parizara iritsi aurretik, bidea gari-soroen eta urte asko ez dela kiskalitako erkametzen artean igarotzen da. "Trobiñu askatu" ageri da Parizako horma batean idatzita. Gaztela zahar-rak finkatu zuen Espainia eta Euskal Herrian ere utzi zuen bere boterearen arrastoa: galan-ki kostatu behar zaie trobiñuarrei Burgoseko atzaparretatik ihes egitea.

### Parizara iritsi aurretik, bidea gari-soroen eta urte asko ez dela kiskalitako erkametzen artean igarotzen da

Paisaia ederra da lau haizetara: labore-soroak, erdi ezkutuan dauden herriak, lur-sail kiribil-  
duak, kolore hori eta nabarrak. Konterria ekial-  
detik mendebalerako noranzkoan doan Uda  
ibaiaren arroan kokatzen da, iparraldeko Gas-  
teizko mendien eta hegoaldeko Toloñoko men-  
dizerraren aurreko mendikate txikiago baten  
artean. Ibaia eta, aspaldi arruntak ziren gaizki  
asfaltaturiko errepide antigoaleko bat zeharka-  
tuta, aldapatxo bat igo eta iritsi gara Albainara.  
Handik lau kilometrora, Argoten, dugu lo-lekua;  
landetxeak eskaintzen duen taxi-zerbitzua ba-  
liatuko dugu. Herriko eta inguruetakoko taberna  
bakarrean dardo, futbolin eta billarrak eraman-  
garriago egin digu atsedena.



Parizako errepidea

Estibalizko eliza albo batetik



## LAÑUKO KOBAZULOAK

Biharamun goizean, bigarren etapari ekin diogu, Albainatik irten eta Guardiaraino. Hala ere, kronika honetan Lagrana bitarteko ibilaldiaren deskribapena baino ez da azalduko. "Trobiñu Araba da" mezua ageri da hainbat etxetako balkoietan zintzilik. Arabatik Arabara goaz. Lañuko kobak kilometro pare batera daude. Sastraken arteko bidezidor estua, aldapan gora, harkaitz batzuen ondoraino ailegatzten da, *Lañuko Gobetaraino*, hain zuzen ere.

Ate bat harrian zizelkatuta, barrua hustutako lau metro karratutako zuloa eta giza irudiko hilobiak harri hotzeko zoruan. Esparru zabalagoan honen antzeko hainbat kobazulo artifizial daude. Eredu honetan ez dira bakarrik IX. mende ingurukoak diren harpeok. Denbora pasa ahala ganaduaren abaroleku bi-

hurtu omen ziren jatorriz ermitauen bizileku izandakoak. Gaur egungo bizitzaren erosotasunaren ikuspegitik hotzikara ere sortzen du antzinako gizon eta emakume haien bizimodu latz hark, toki hartantxe euren borondatez edo halabeharrez finkatu ziren ez badakigu ere. Egun paraje bakartiak dira hauek: bidaiariaren itzalean inor ez dabil.

## EL AVELLANO MUGARRIA

Kilometro erdia errepidean egin ostean Lañura iritsi dira. Eliza txukuna eta iturri emaritsua. Menditik datozen erretenetan ura ugari. Pertsonak ezean bi txakurtxo agertu dira: zuria bata, beltza bestea. Arrotzek jasan ohi duten merezi gabeko harrera oldarkorrik ez bidaia-riendako, jolasgura baino ez hankak eta besoak miartzuz ongiatorria eman dieten txakurrok. Aurretik txakurtxoak dituztela, Lañuko ortuzainek baratzak ureztatzeko darabilten aldapa-roaren ertzetik doan bide zuzenari ekin diote. Txakurrek akaberarik gabeko korrikaldiak egiten dituzte, gurasoen zaintzaren gatibutasunetik askatu berri diren haurrak bailiran.

## “Trebiniu Araba da” mezua ageri da hainbat etxetako balkoietan zintzilik

Hemendik eta Arabako mugara bitarte dena aldapa da, neke handirik gabeko aldapa, hala ere. Pagadian barneratuz goaz, gerizpetan eroso dagoeneko berotzen ari den eguzkipe-tik salbu. El Avellano deituriko mugarrira iritsi aurretixoan, basoaren erdian eta mendiaren gorenean, iparraldera bista ezin hobeak dituzten gari-soro handiak daude: Trebiniu eta Arabako mendiak primeran antzematen dira eta, urrunago, mutur batean Gorbeia eta bestean Aizkorri-Aratz.

## LAIKA TXAKURRA

Ezaguna da txakurtxo hauek nagusi berriak nahi dituztela. Hauek uxatzen ahaleginak egin baditugu ere, aldapan behera ere bide-lagun, ez dute gibelera egiten. Lagrana goitik behera hiruzpalau kilometro. Basoa itxia da eta ez da deus ikusten. Halako batean Lagran eta atzean Cruz del Castillo, Palomares,

Cervera eta abarrak. Buruan ideia bakarra: nola iskin egin txakur madarikatuoi? Bake santuan dagoen Lagrango frontoiaren tabernako terrazan mahai azpian etzan dira. Ibilaldiaren ostean, hauek ere gose eta egarri dira, noski. Bertako nagusiari argitu behar izan diogu txakurrago pegatu egin zaizkigula, hari eta herritar batek esan duen ezagutzen dituela. Behin baino gehiagotan azaldu izan direla mendizalaren bat lagun hartuta.

Txakurretan nagusi dirudienaren lepokoari erreparatzeko astia hartu dugu: *Laika* izena ageri da eta honen azpian telefono zenbaki bat. Errusiarrek espaziora bidali zuten txakur ospetsu haren izen bera du. Esan beharrik ez dago nagusiak izena ipini zionean bete-betean asmatu zuela: aspaldiko hura bezalaxe hau ere abenturazale amorratua da.

Ibiltariok, jango badugu, ustezko nagusiarri deitu beste erremediorik ez dugu. Nagusia ez da harritu eta txakurrago berreskuratu nahi baditu Lagrana etorriko beharko du, *subir a Lagran* haren hitzetan. Bazkalondoan Guardiaraingo jarraituko dugu, txakurrik gabe oraingoan.

Baratzak Lagrana bidean

